

BALIO PROPOSAMENA

1. Proiektuaren deskribapen orokorra

Vitalix aplikazio berritzailea da, larrialdi baten lehen minutuetan erantzun azkar eta koordinatua eskaintzen duena, osasun-prestakuntza duten pertsonak laguntza premiaz dutenekin konektatuz.

Aplikazioak geolokalizazio adimenduneko sistema erabiltzen du hurbilen dauden boluntarioak aurkitzeko eta zuzenean 112 / SOS Deiak zerbitzuekin konektatzeko, jarduera guztiak profesionalak gainbegiratuta egon daitezen bermatuz.

Gainera, Vitalixek lehen sorospenetako etengabeko prestakuntzarako gune bat eskaintzen du, ikastaro eta simulazio interaktiboekin, erabiltzaile bakoitzaren mailara egokituta. Horrela, hezkuntza pertsonalizatua eta prestaketa etengabea sustatzen dira.

2. Vitalixek konpontzen duen arazoa

Larrialdi mediko askotan, profesionalak iristeko itxarotea oso luzea izan daiteke, eta horrek biziraupen-aukerak murrizten ditu.

Vitalix-ek arazo hau konpontzen du tokiko komunitatea aktibatuz eta lehen laguntza azkar eta eraginkorra emateko aukera emanez, hurbilen dagoen eta egiaztatutako osasun-prestakuntza duen pertsonaren eskutik.

3. Qué diferencia a Vitalix de otras aplicaciones

Vitalix combina tecnología, comunidad y diseño centrado en la persona, con características únicas que refuerzan su propuesta de valor:

- **Berritasuna:** Adimen artifizialaren erabilera, botikinak dituzten droneak eta zerbitzu publikoekin lotura instituzional zuzena.

- **Prestazioak:**

Vitalix aplikazioaren prestazioak bermatuta daude administrazio publikoaren laguntza ekonomikoari eta erabiltzaileen ekarpenei esker.

Osasun arloko gizarte-ekimen bat denez eta tituludun boluntarioak dituenez,

proiektuak finantzaketa publikoa jasotzen du bere garapena eta larrialdi-zerbitzuekin duen koordinazioa indartzeko.

Era berean, erabiltzaileek 1,99 €/hileko edo 15 €/urteko kuota batekin laguntzen dute, sistemaren iraunkortasuna eta etengabeko hobekuntza bermatzeko.

Horrela, aplikazioak honako hauek eskaintzen ditu:

- Larrialdi publikoen sarearekin (112 / SOS Deiak) integrazio zuzena.
- Lehen sorospenetan prestakuntza emateko plataforma eguneratua.
- Egiaztatutako boluntarioen datu-base fidagarria.

Modu honetan, Vitalix osasun-sistema publikoaren osagarri gisa jarduten du, komunitate solidario eta autosostengagarri bat sortuz.

- **Pertsonalizazioa:** Aplikazioa pertsona bakoitzari egokitzen zaio. Abisuak, ikastaroak eta esperientzia zure mailaren eta beharretara moldatzen ditu. Ez da berdin hasten ari bazara edo lehen sorospenetan esperientzia baduzu: Vitalix zure profilaren arabera doitzen da.
- **Lana erraztea:** Vitalix-ek lan asko errazten die osasun-langileei eta boluntarioei. Larrialdiak automatikoki antolatzen ditu, denbora aurrezten du eta erabiltzeko oso erraza da. Erabiltzaileek ez dute teknologia asko jakin behar aplikazioa erabiltzeko.
- **Diseinua:** Aplikazioa garbia, ordenatua eta erraza da erabiltzeko. Dena ondo antolatuta dago, eta estres-uneetan ere ondo funtzionatzen du.
- **Marka / Estatusa:** Vitalix komunitate moderno eta solidario baten sinboloa da. Pertsonen arteko laguntza eta teknologia uztartzen ditu, eta horrek konfiantza ematen du.
- **Prezioa:** Ez da garestia: 1,99 € hilean edo 15 € urtean. Horrela, edonork parte har dezake arazorik gabe.
- **Arriskuen murrizketa:** Vitalixekin laguntza lehenago iristen da, eta horrek bizirauteko aukera handiagoak ematen ditu. Gainera, gastu medikoak txikiagoak dira eta dena hobeto funtzionatzen du.

- **Eskuragarritasuna:** Hainbat hizkuntzatan dago erabilgarri, eta desgaitasuna duten pertsonak ere erabil dezakete.
- **Erabilerraztasuna:** Azkarra da, erregistratzeko erraza eta primeran dabil mugikor eta tabletean.

4. Balio kuantitatiboa eta kualitatiboa

Balio kualitatiboa eta kuantitatiboa

Balio numerikoa:

- Erantzun-denbora %30 eta %40 artean murrizten du.
- Osasun-zerbitzuen kostu osoa murrizten du.

Aldaketa hauek sistema eraginkortasunean eragin zuzen eta kuantifikagarria dute. Larrialdi kasuetan, erantzun-denboren azkartzeak emaitzak hobetzen ditu eta tratamendu konplexuen beharra gutxitzen du. Ondorioz, osasun-kostuak eta baliabideen kontsumoa murriztu egiten dira.

Balio kualitatiboa:

- Herritarren arteko konfiantza eta segurtasuna handitzen du.
- Lankidetzak eta parte-hartze aktiboa sustatzen du.
- Herritarrek osasun publikoko aktore nagusi bihurtzen ditu.

Balio hauek ez dira zenbakitan adierazten, baina bizitza egunerokoan eragin argia dute. Segurtasun-sentsazioa handitzen denean, jarrera lasaiago eta seguruagoa sortzen da; elkartasuna sustatzen denean, komunitatearen konpromisoa eta kohesioa sendotu egiten dira; eta herritarrei protagonismoa ematen zaienean, haien lotura osasun-sistemearekin indartu egiten da. Guztira, elementu hauek guztiak inguru sozial seguruago eta bateratuago bat eraikitzen laguntzen dute.